



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/01

## **Batzar Nagusiek berregite historiko batez itxi dabe "Emakumeok" erakusketea, 120.000 pertsona baino gehiagoren bisitea jaso ostean**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Beti Jai Alai Dantza Taldeak, "El Besamanos" koadrua irudikatuz eskini dauen koreografia historikoagaz itxi dabe gaur "Emakumeok. Gernikako Arbolaren Aurrean" erakusketea. Gernikako Batzarretxean egon dan eta emakumeak bizitza publikoan bete izan dauen aintzatespena eta ikusgaitasuna bultzatzen dauen erakusketea 120.000 pertsona baino gehiagok bisitau dabe.

Bizkaiko Batzarrek erakusketearen itxierea hilebete atzeratzea erabagi eben, arrakastea ikusita. "Bere egoitzak zabaltzea eta bere historia ezagutuarazotea. Batzar Nagusien ondarea balioan jartea eta emakumeek bete izan daben lekua ikusgai bilakatzea". Horreek izan dira gaur azken egunez ateak zabaldu dituan erakusketea martxan jartera bultzau eben helburu nagusiak, Ana Otadui Bizkaiko Batzarretako presidentek gogorarazo dauenez.

Gaur, jende askoren aurrean, Beti Jai Alai Dantza Taldeak, erakusketaren ardatz nagusia dan "El Besamanos" koadruaren berregitea egin dau. Francisco de Mendietak XVII. mendearen lehenengo hamarkadan margotu eban koadrua, Europako artean egin zan emakumeen lehenengo talde erretratua da, erakusketan bertan ikusi ahal izan dan egile beraren "Los Esponsales" koadruagaz batera.

Erakusketarako bere lekutik kendu izan dan eta normalean Batzarretxeko hemizikloaren buru dan artelanaren omenez, Bilboko dantza taldeak eszena bera marraztu dau bere mobimenduakaz Batzarretxearen kanpoaldean. Garai haretako jantziakaz eta burukoakaz, eta Erdi Aroko musikea eta dantzak eskiniz, Fernando Katolikoak Foruei zelan zin egin eutsien erakusten dauen eszena irudikatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
01/10/2017

## **Las Juntas Generales cierran con una recreación histórica la exposición "Emakumeok" tras ser visitada por más de 120.000 personas**

Las Juntas Generales de Bizkaia han puesto hoy el broche final a la exposición “Emakumeok. Gernikako Arbolaren Aurrean” con una coreografía histórica a cargo del grupo Beti Jai Alai Dantza Taldea que ha representado el cuadro “El Besamanos”. La exposición alojada en la Casa de Juntas de Gernika que promueve el reconocimiento y la visibilización de la mujer en la vida pública, ha sido visitada por más de 120.000 personas.

La Cámara vizcaína decidió prolongar un mes más el cierre de esta muestra debido a su éxito. “Abrir sus sedes y dar a conocer su historia. Poner en valor el patrimonio de las Juntas Generales y visibilizar el papel de las mujeres”. Son los objetivos principales que impulsaron la puesta en marcha de esta exposición que hoy se abre por última vez, según ha recordado la presidenta de la Cámara vizcaína, Ana Otadui.

Ante la presencia de numeroso público, el grupo Beti Jai Alai Dantza Taldea ha hecho una recreación de “El Besamanos”, obra sobre la que gira toda la muestra. Pintada por Francisco de Mendieta en la primera década del siglo XVII, es, junto a su otra obra “Los Esponsales” – presente también en la exposición-, el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo.

En homenaje a la pintura que preside habitualmente el hemicycle de la Casa de Juntas, descolgado para la ocasión, el grupo de danzas bilbaíno ha dibujado con sus movimientos en el exterior de la sede parlamentaria la misma escena. Ataviados con vestidos y tocados de la época, han recreado con música y danzas medievales aquella jura de los Fueros por parte de Fernando el Católico.